



## **Bortzirietako Mankomunitateak eta Baztango Udalak bat egin dute Gai organikoaren birziklapena sustatzeko “ORGANI-KOPA olinpiadarekin”**

*Atzo aurkeztu zen Tafallan Nafarroako Hondakinen Patzuergoak bultzaturiko ekimena eta Nafarroako 11 mankomunitatek eta 92 udalerrik osatuko duten ekimenaren parte izanen dira gure eskualdeko bi entitateak ere.*

ORGANI-KOPA ekimena maiatzaren 3a eta uztailaren 3a bitartean luzatuko da eta bi hilabete hauetan herritarrek bereizten duten hondakin organikoa neurtuko da.

Gure eskualdean 2 lehiaketa antolatuko dira, bata Bortzirietako Mankomunitatea osatzen duten 5 herrien artean eta bertzea Baztango Udaleko 15 herrien artean. Entitate bakoitzeko herrien arteko lehia izanen da, beraz.

Lehiaketaren **helburua gai organikoaren bilketa haunditu** eta Nafarroako Hondakinen Planak planteaturiko helburuetara hurbiltzea izanen da, eta honekin batera bereiz bildutako hondakin frakzioen kalitatea hobetzea, gure eskualdeko herritarren artean kontzientzia piztea, gai organikoaren bereizketarako ohiturak bultzatzea eta batez ere **edukiontzi berdetik hondakin birziklagarriak atera** eta honela zabortegetara bideraturiko hondakin kantitatea murriztea. Horregatik, atzoko ekimenean aipatu bezala, *“errefusari gola sartu eta organikoaren aldeko apustua egiten dugu”*.

Erran bezala, ekimena 2 hilabeteetan zehar luzatuko da eta epe honetan Bortzirietako herri bakoitzean kontenedore marroietan bildutako hondakin organikoa neurtuko da eta Baztango kasuan bai auzo konpostaguneetan eta baita dauden kontenedore marroietan bildutakoa ere hartuko da kontutan neurketetarako. Datuak astero publiko egingen dira eta olinpiaden bukaeran biztanleko hondakin organiko gehien biltzea lortu duten herriak izanen dira Sakanako Mankomunitatean egingen den Nafarroa mailako bertze ekitaldi batean saria jasoko dutenak.

Argi dugu partehartze hutsarekin eskualdeak eta Nafarroak irabaziko duela, hondakinen kudeaketa egokiak guztioi eragiten digulako, baina kasu honetan lehiatu eta emaitza hoberenak lortzen dituztenek izanen dute ekonomia zirkularrarekin loturiko eta zonalde bakoitzean 5.000€ tan baloraturiko sariak lortzeko aukera.



Aukera bikaina herriaren alde, ingurumenaren alde eta guztion alde aportazioa egiteko! #irabaziOrganikoarekin!!

**2021eko apirilaren 27a**  
**Informazio gehiagorako: [hondakinak@bztan.eus](mailto:hondakinak@bztan.eus) edo 667 808 539 (Miren)**